



HIZKUNTZA MINTEGIA 2020/21

Hizkuntza Proiektua - Irakurketa Plana - Eleaniztasunerantz

EMAILEA: David Bilbao Beraza

DATAK: Urriak 21, azaroak 18, urtarrilak 20, otsailak 24, martxoak 24 eta maiatzak 19

ORDUTEGIA: 9:00etatik 11:30etara

LEKUA/FORMATUA: posible denean, Ordiziako Berritzegunean; bestela, bideokonferenzi bidez.

IZENA EMATEKO ESTEKA: <https://labur.eus/fcMc3>

IZEAN EMATEKO AZKEN EGUNA: urriak 16, ostirala

NORI ZUZENDUA:

Lehen zein Bigarren Hezkuntzako hizkuntza koordinatzaileei zuzenduta dago, baina bereziki ikastetxe hauetakoei:

- **Eleaniztasunerantz deialdian** parte hartzen ari dierank
- **Irakurketa Plana edo Hizkuntza Proiektua** garatzen ari direnak.

HELBURUAK:

- ❖ Hizkuntzei lotutako proiektu eta ekimenen (Irakurketa Plana, Eleaniztasunerantz, Hizkuntza Proiektua, Programa europarrak...) inguruko **esperientziak eta informazioa partekatzea**.
- ❖ **Hizkuntza-komunikaziorako estrategiak** lantzea. Irakurtzeko, idazteko eta ahozkotasuna lantzeko aldarnatze-baliabideak lantzea, aniztasunari erantzunez.
- ❖ **Irakurzaletasuna** bultzatzeko tresnak, jarduerak eta dinamikak ezagutu eta proposatzea.
- ❖ **Hizkuntzen Trataera integrala** lantzea: proiektu/unitate didaktikoen baitan, ikasleei laguntzeko tresnak, jarduerak eta dinamikak (SIOP, CLIL) ezagutu eta proposatzea.
- ❖ Ikastetxeen **lankidetzaren eta gogoetaren partekatua** bultzatzea.

EDUKIAK:

Goian aipatutako helburuak gauzatzeko aldera, mintegia hiru eduki ardatz hauetan oinarrituko da naguski:

1. Hizkuntza komunikaziorako estrategiak

Berritzegunean azken bi ikasturteetan egindako lanari jarraipena emanez, **irakurketa** kompetentziak garrantzi berezia izango du. [Beatriu Palau](#)-ren atazatxoetatik abiatuta,



irakurketa estrategietan sakondu dugu, batez ere hauen mailakatze eta programazioa lehen eta bigarren hezkuntzan.

Baina, Víctor Morenok dioen bezala, irakurketa idazketarik gabe ulertzen ez delako, **idatzizko (zein ahozko) ekoizpenei** ere tarte eskainiko diogu. Besteak beste alderdi hauek lantzea aurreiskusten dugu: planifikazioaren garrantzia; idazteko proposamenak testu mota desberdinak abiapuntu bezala hartuta (irakurritako testu batetik, literatur tradizioetik); literatur testuan bariazioak eta transposizioak; *feedback*-a, zer/nola zuzendu, kalifikatu eta ebaluatu.

Lan horretan laguntzeko, **azaroaren 18an [Victor Moreno](#)** izango dugu gure artean idazketaren inguruan aritzeko, eta **martxoan**, Ulibarri mintegiarekin elkarlanean, **[Galder Gonzalez](#) wikilariak** tailertxo bat eskainiko digu Wikipedia eta Txikipediak eskolan idazmena lantzeko duten gaitasunaz.

2. Irakurzaletasuna

Literatur bitartekaritzaren garrantzia hartuko dugu abiapuntu gisa. **Eskola liburutegia** oinarri bezala hartuta, **bitartekariak** gure ikasleen irakurketen bidelagun bilakatu beharko lirateke, haur eta gazte literaturaren kanona irakurle bakoitzaren neurria egokituz: album ilustratua, ipuina, fikzio-digitala, nobela grafikoa, eleberria...

Proposatutako irakurketa horien inguruan landu daitezkeen **jarduera eta** ekoizpen motibagarrien **sorta zabala** eskainiko ditugu.

3. Hizkuntzak etxetik ikasten

Krisi guztiak bezala, COVID19ak erronka berriak mahaigaineratu ditu. Etxetik ikastera derrigortuta dauden ikasleei eskaini beharreko arreta da horietako bat. Zer nolako zereginak eta lanak bidali behar dizkiegu? Nola bultzatu dezakegu talde-lana eta elkareragina? Nola egin jasagarria eta eraginkorra *feedback*-a zein ebaluazio hezigarria?

Galdera horiei guztiei erantzuna ematen saiatuko gara, baita ikasturtean zehar azaleratzen diren berriei ere, **hizkuntza irakakuntzak eskaintzen dituen baliabide digital** batzuk aztertuz, batez ere ahozkotasanari lotutakoak.

4. Hizkuntzei lotutako proiektu eta ekimenei (Irakurketa Plana, Eleaniztasunerantz, Hizkuntza Proiektua, Programa europarrak...) buruzko informazioa eguneratua emango da, ikastexetan martxan daudenen jarraipena lehenetsiz, **esperientzia eta informazio partekatzea bultzatuz.**

SAIOEN FORMATUA:

- A. Lan-saioa: ikastetxeei eta irakasleei erantzuna emateko proposamenak garatuko dira.
- B. Ikastexetako esperientziak partekatzeko atala.
- C. Koordinazioa eta informazioa: Irakurketa Plana, Deialdiak, Programa europarrak, hizkuntza laguntzaileak.

OHARRA:

Saio bakoitzaren deialdia eta gai ordena aste bete lehenago zabalduko da izena eman dutenen artean.